

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO


## Almaleko landareak

LANDAREEN tumore edo lupu artean ibili eta gero, gure tumore edo lupuak, “lupuak helduko al dink”, sendatze bidean erabiltzeko dugun landare aukera izugarriari heldu nahi diot. Gero eta handiagoa den aukera, egunetik egunera hazten ari den erreskada. Hona familiaka: baratxuria, tipula, porrua, txalota eta tipulina, minbiziaren zelulak hiltzeko ahalmena dute. A bitamina eta likopenoa duten barazki eta fruituak, tomatea, azenarioa, kuiak eta kuitxokak, albortxikoa, kakia eta abar, zelula gaiztoen hazkuntza eragozle. Itxuraz soiak eta te berdeak ere antzeko lana egiten dute. Fruitu gorriak, ai fruitu gorriak! Masusta, gerezia, ahabia, marrubia, mugurdia... azido miragarrien habia. Eta belar eta espeziak, perrexila, erromeroa, albahaka, oreganoa, mendarora, mendafina, ezkaia, kanela, kurkuma, jengibre... hauek sarri dantzatu beharko genituzke, gure plateren zeruetatik gure aho sabaietara. Lizar-hostozko koroa merezi dutenak, jakina, azatarrak: aza bera, Brusela aza, brokolia, buru-aza, zuhain-aza, azalorea, arbi-aza, aza gorria, aza kizkurra, romanesku aza, aza txinatarrak... aukera eta merkea botika.

*Elyssia Chlorotica*, itsas bare berdea. Animalia izanagatik gai da landareek bezala fotosintesia egiteko, hartarako beharra duenean.



REEFBUILDERS.COM



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



FOREST&KIM STARR



HEDWIG STORCH



WWW.AGOOSA.COM

Baratxuria, tomatea, tipula... eta beste hamaika. Landare aukera izugarria dugu minbiziari aurre egiteko. Baratxuriak eta tipulak minbiziaren zelulak hiltzeko ahalmena dute. Tomateak, haien hazkuntza eragoztekoa.

Landareen mundutik urrutira gabe baina kanpoan, perretxikoak ere oso onak dira lupuari hiltzeko lanean, defentsak galanki indartzen baitutuzte. Landareak direnak eta ez direnak animalion lupuaren aurka. Landareek beren gisa egiten dutena egiteko, bizi, guk beraiek hil behar ditugu, jateko. Jate honetan gizakiok baino etekin hobea lortzen dutenak badira. *Elyssia chlorotica* molusku edo itsas barea adibidez. Gorbela, algak jaten ditu eta hauen eskasia dagoenerako prest izaten da. Algen kloroplastoak azalean jasotzen ditu, eskasi garaian jakiak sortzeko fotosintesia berak egiteko. Honek berde kolore ederra ematen dio. Soil-soilik landareena zela uste zen sintesi hau egiten zuelako ezaguna egin zen lehen animalia. Behiak edo belarjaleok inoiz berdetuko ote gara?



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea  
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko  
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberrí Basolanak, S.L. • Axpe ibaiarta 28, beheko solairua, B12 lokala  
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241  
luberrí@luberrí.biz • [www.luberrí.biz](http://www.luberrí.biz)